

## **Lasa herria egutegiko eliz-besten erritmoan (1940-1960)**

E.: zure familia elizari jarraikia zela, aita iiztarien mezara zoala eta olako beste gauza batzu aipatu tuzu. Laborari mundua orokorki lotua zen ere, atxikia zen elizari eta elizako urratser?

M.: a ba, ba, ba, ba, ba. Eta leen-leenik Salvatore aitzineko hiru egunetan prosezioniak eta iten zien, deitzen zien rogazioniak, eta herrian bagintin hiru kurutze eta joaiten ginenak prosezionian, eta rogazioniak bano leen bazen Sen Marc, hua apilain oita bostian zen, eta ordian e baginin eta emen, gure etxia bano beeraxoño, parrian, eta kuutze bat, Sen Markez haat zen usaia, ta rogazioneko hiru kuutze bagintin, ta kuutzeetaat eta luzaz, kasik etxe guzitaik norbait bazen prosezionian, ta kantuz saindu guzien eta zerak, ora pro nobis, ora pro nobis, joaiten ginen eta... Apezak erraiten zin saindian izena, ta jendiak giiletik eta ora pro nobis, ta erraiten zin, ta laborantxa mundia, ta nik ezagutu ut ene gazte denboran, eta etxetan ogia iten zen ordian, ogia sortaazten, ez ogia erretzen edo iten, ogia alorretan sortzen, eta Andre dena Mari atsaldez, eta etxeko... Normalian, hala nai zin jaun ertorak e, normalian nai zin etxeko nausiak, ua baitzen ogi ereilia, sasoinian, etxeko nausiak ereman zezan saku batian ogi-hazia benedikatzeko, bezperetan eremaiten zuten ua, aldare aitzinean zen maai ttipi baten gainerat, eta atxikia zen jaun ertora, nai zin ogia ereinen zin gizona izan zadin han, gero ez balin bazen eta iten aal edo bestze norbaiten eremaiten bazin ere, ez zin kenduko, eh, benedikatu gabe, bana galdegiten zin eta etxeko eta gizonak, nok e ereinen baitzin ogia, hua joan zain, bon, galde bat zen, eta jinkoain aitzinian azi ua untsa sor zadin, eta begiratia izan zain, nola errain dut, kalerna edo zernaiaetaik, hori zen elburia, begiratia izaiteko ola eta ogi landa ua, ba, eta jendiak joaiten ziren e! Bazinaki eta ze zaku multso andana muntatzen zen, bon oai emen ez du nehok eta iten eta ogik, eta ez da ogik eta iten, kabalak hartu du gaina, anitz dena kabala leku da emen, ta ogia ta artoa re gain otan, eremu ttipiak dira, eta eremu ttipiak di... Biziki eremu ttipiak dira ta ibiltzeko re denetan ez da errex, ez dira zelaiak e, beti, mendi eskualdian, ta oai anitz leku emen alagiak dira, pentziak, belarra ta soua iten da, ta kabalak, ardi, behi bada ta, bon, bizia kanbiatu da, moldiak kanbiatu dira.

### **Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala